

## KOLOREZTATU ZURI BELTZA

Pasa den abendu bukaeran Uarkapeko inguruak garbitzeari ekin zenioten, bertatik herri honen errealitatea erakusten zuten hiru horma-irudi ezabatuz. Horietako baten gainean jada “adierazpen askeko” panel bat jarria zenuten aurretik, gaur egungo gizarte globalizatu, kapitalista eta patriarkalak gazteongan duen eragina azaleratzen zuen horma-irudiaren gainean alegia. Horrela, gazteon prekarietate egoera larria tapatu eta aldi berean Ernai gazte antolakundearen aldarrikapenak Arrasateko kaleetatik kendu nahi izan zenituzten.

Gazteoi buruzko inkesta eta datuak sarri entzuten baditugu ere, Arrasateko gazteok 2014ko maiatzaren 1ean datu hauek modu ikusgarriago batean kaleratu nahi izan genituen, Euskal Herri osoko gazteria aintzat hartuta. Lan merkatuaren egoerak gazteon prekarizazioan duen eraginaren inguruko argazki bat osatuz.

Ordutik hona, gazteok bizi dugun egoerak ez du hoberantz egin, are gehiago, neoliberalismoak eragindako krisia bere helburuak lortzen ari da, prekarietatea sistematizatuz, iraunkortuz eta gazteon pobretzean sakonduz, are gehiago emakumeen kasuan. Guzti hau lan baldintzen kaskartzearekin eta soldaten jaitsierarekin ari da lortzen, dirua gutxi batzuen poltsikoetan metatuz.

Prekarietateaz hitz egitean bi kontu garbi adierazi nahi ditugu: batetik, prekarietatea ezegonkortasun eta segurtasun ezaren sinonimoa dela eta bestetik, egiturazkoa dela eta ez koiunturala. Beraz, kapitalismoa eta prekarietatea eskutik doaz.

Uarkapen zegoen horma-irudi horretako datuek adierazten zuten errealitate gordinak zoritxarrez gaur egun bere baitan jarraitzen du. Hori dela eta orduan eginiko adierazpena berriz ere plazaratzea nahi izan dugu. Egoera hau iraultzeko gazteok orduan proposatzen genituen alternatibak indarrean diraute.

Zentzu horretan, iraultza sozialistaren norabidean, aterabide osoa emateko Euskal Estatuaren aldeko apustuan berresten gara. Neoliberalismoak merkatuaren bidez herritarrok politikan eragiteko dugun gaitasuna bahitu nahi izan du. Prozesua herri boterearekin irauli behar da eta burujabetza da horretarako bidea.

Bestetik, egungo merkatuaren logikari intsumisioa egin behar zaiola pentsatzen jarraitzen dugu. Alde batetik, eskubideen murrizketak eta baldintzen kaskartzea ez onartuz eta hauen alde egiteko antolatu eta borrokatuz. Bestalde, gure kontsumo ohituretan kriterioz jokatzuz eta enpresa kapitalistetan ez kontsumituz ahal dela.

Azkenik, gazte kooperatibak sortu eta saretzea beharrezkoa da, merkatu justu eta solidarioago bat eraikitzen bidean.

Horma grisak, gizarte grisa eta pentsaera grisa bultzatzen duzuenon aurrean, jarrai dezagun bakoitzak bere esparrutik kolorez kontzientziak astintzen. Gazteok badakigu

eraldaketa gure baitan dagoela, pairatzen dugun errealitate gordina iraultzeko kaleetan borrokan jarraituko dugu. **Gure ideia eta aldarrikapenak ezin izango dituzue 3 x 1,5 metroko "adierazpen askeko" gunetara mugatu.**

**MOZAL ORDENANTZARIK EZ, INPOSATU NAHI DIGUZUEN GIZARTE  
GRISARI EZ!**

